

## **Behe betortza**

Morfologi aldetik goi betortzaren ezaugarri antzekoak ditu behe betortzak ere. Behe betortzaren koroa goikoarena baino estuagoa da hurbil-urrun ardatzean, baina antzekoa edo handiagoa izaten da luzeran. Gainontzeko neurrietan goi betortza baino txikiagoa izaten da. Erroa goi betortzarena baino txikiagoa izaten da, bai hurbil-urrun ardatzean eta bai mihi-ezpain ardatzean.

### Batez besteko neurriak (ezpain-aldean neurtuta):

Altuera osoa: 26 mm

Koroaren altuera: 11 mm

Erroen luzera: 15 mm

Koroaren zabalera hurbil-urrun ardatzean: 7 mm

Koroaren zabalera mihi-ezpain ardatzean: 8 mm

KEI: 1,3

### Ezpain-aldeko ikuspegia

Koroa alboko behe ebakortzarena baino milimetro batez zabalagoa izaten da hurbil-urrun ardatzean, baina goi betortzarena baino milimetro batez estuagoa. Koroaren ezpain-aurpegia zapalagoa eta leunagoa da, eta hiru hazkuntza-lobuluak ez dira goi betortzean bezain garbi bereizten. Silueta hurbila artez samarra da errotik ebakitze-hereneraino. Ebakitze-herenean itzali egiten da silueta hurbilaren arteztasuna ebakitze-aldera iristean.


**Ukigune hurbila** ebakitze-herenean aurkitzen da, eta **ukigune urruna** ebakitze-herenaren eta erdiko herenaren elkargunean.

Silueta urruna goi betortzaren antzekoa da, ahurra alegia idun-lerrotik ukigunera bitartean. Haatik, ukigunea hurbilago dago ebakitze-ertzetik behe betortzean goikoan baino. **Ebakitze-gailurretik ebakitze-gangar** bana hedatzen da atxikitze-alde bakoitzerantz, eta ebakitze-gangar hurbila da bietarik laburrena (ia 1/3 vs 2/3).

Erroa 1-2mm laburragoa izan ohi da goi betortzarena baino. Erpina zorrotzagoa da gehienetan, eta alde hurbilera okertua.

### Mihi-aldeko ikuspegia

Goi betortzean baino askoz leunagoak izaten dira **mihi-gangar**, **mihi-ildo** nahiz **mihi-hobiak**, eta **zingulua** ez da hain garatua. **Bazter-gangarrak** ere ez dira goi betortzean bezain nabarmenak. Mihi-aldea estuagoa da hurbil-urrun ardatzean ezpain-aldea baino.



Eskuineko behe betortz iraunkorra. Ezkerretik eskuinera ezpain aldeko, mihi aldeko, alde hurbileko eta urruneko ikuspegiak. 1. Ezpain-gangarra. 2. Ebakitze-gangarra. 3. Gailur-gangar hurbila. 4. Gailur-gangar urruna. 5. Ukigune hurbila. 6. Ukigune urruna. 7. Idun-lerroa. 8. Mihi-gangarra. 9. Mihi-hobia. 10. Zingulua edo gerrikoa. 11. Bazter-gangar hurbila. 12. Bazter-gangar urruna.

#### Atxikitze-aldeetako ikuspegia

Koroa ez da goi betortzean bezain ganbila ezpain-aldean. **Zingulua** ere ez da hain nabarmena. **Ebakitze-gailurra** estuagoa da mihi-etzpain ardatzean, eta zorrotz itxura ematen dio ebakitze-ertzari. Ebakitze-gailurraren burua erroaren ardatzean bertan egon daiteke baina gehienetan erdigunean barik apur bat ezpain-aldean kokatzen da, goi betortzean baino pixka bat areago.


**Idun-lerroa** uztaituago dago ebakitze-alderantz goi betortzean baino. Erro-aldean nahiko nabarmena izaten da **garapen-ildo hurbila**. **Garapen-ildo urruna** hurbila baino sakonagoa izaten da sarritan.

#### Ebakitze-aldeko ikuspegia

Goi betortzaren antzera, behe betortzaren koroa zabalagoa da mihi-etzpain ardatzean hurbil-urrun ardatzean baino. Silueta hurbila, berriz, ez da hain biribildua.

Erro-aldea eta muin-aldea

Goi betortzaren erroa baino apur bat laburragoa izaten da behe betortzarena. Muin-kanala I motakoa da gehienetan (%78), baina ez da bakan gertatzen (%5-6) erro bi edo muin-kanal bi aurkitzea, bata ezpain-aldean eta bestea mihi-aldean <sup>1</sup>. Erradiografietan ez da bereizten sarritan kanal bat ala bi dauzkan. Halakoetan, erroen bikoizgunea erpineko-herenean ikusten da maizen, baina erdiko edo iduneko herenetan ere aurki daiteke. Mihi-ezpain ardatzean zabalak diren betortzetan bolizko metak aurki daitezke muin-kanal barruetan. Muin-kanala, erro osoaren siluetari berari jarraituz, apur bat alde hurbilerantz okertuta aurkitzen da gehienetan. Iduneko herena zeharka ebakiz gero, koroa-barrunbearen siluetak itxura hiruki, lauki edo arrauzkara dauka.



Eskuineko behe betortz iraunkorra. Ezkerretik eskuinera ebakitze-aldeko ikuspegia eta muin-aldea ezpain aldetik eta alde hurbiletik begiratuta. 1. Ebakitze-gailurra. 2. Gailur-gangar hurbila. 3. Gailur-gangar urruna. 4. Mihi-gangarra. 5. Zingulua. 6. Mihi-hobia. 7. Bazter-gangar hurbila. 8. Bazter-gangar urruna. 9. Koroa barrunbea. 10. Muin-adarra. 11. Muin-kanala.

<sup>1</sup> *Ibid.*